

MATERIALISMO HISTERIKOA

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

Ez-lodiok



UXUE APAOLAZA LARREA

Nire inguruan lodiak daude. Ni ez naiz bat. Lagun lodiak ditut (barre algarak). Eta ziur nago nire inguruko lodietako batzuen arazo nagusia horixe bera dela. Ez, ez, ez lodiak izatea. Ni beren laguna izatea baizik. Ni eta ez-lodi gehiago. Isilik egoten ez dakigunak. Eta HORRI buruz hitz egin egiten diegu, eta esaten diegunak ia beti eskatzen du zerbait beren partetik. Dieta bat ez bada, *ezdakitzeri* aurre egiteko indarra, edo guk ere eduki ditugun konplejoen zerrenda entzutea. Denok gara lodiak (berriro barreren bat). Gure intentzioa ona da, ona da estuasunak azkar pasatzea beti delako ona, alegia, horretara jarrita egoten dela gure asmoa.

“Loditasuna politizatzeko premia” azpimarratu zuten Lodi-fobiaren aurkako egunean. Eta sorpresaz harrapatu nau loditasun-tasek klasearekin duten loturari buruz irakurtzen. Arbuia-tzen dugun edozerk dauka zerikusia klasearekin, dirudienez. Nahiko frogatuta dago, komeni da gogoan izatea, baina, eta, nahiko eroso ere uzten gaitu, ez? Eta kasu honetan ere, nahiko garbi dago, klasearenak ez duela arbuio guztia azaltzen. Goya sarietako glamourrera ere irristatu zen gordofobia, emakume baten gainera: etxetik eder atera zena, alfonbran biluztu zuten, erridikulu egin zuten. Kamera ofizialen planoan sartzea zer amildegi izan daitekeen.

Emakumeak ziren lodifobiaren aurkako martxaren argazkietan ikusten zirenak. Martxoaren 8a badator, badoa... iraultza txikiz kargatuta. Eta horietako batzuek, ez-lodioi, entzutea eskatzen digute. Lagun hobeak izateko besterik ez bada. Eta entzun nahi ez bazenu, isildu behintzat. ●

NORMALITASUNA.



EAJ

Osakidetzak 220 milioi euro bideratu ditu EAJko kargu ohien enpresetara, 2019 eta 2022 bitartean. EH Bilduk urtarillaren 18an egindako galderaren harira, Gotzone Sagardui Osasun sailburuak Osakidetzak harremana duen enpresa pribatuen inguruko informazioa eman du. Gipuzkoan egon dira diru-mugimendu handienak.

Ate birakariak

SPRI agentziako zuzendari izatetik agentziarekin lotura zuen Eurocybar enpresa pribatura pasa zen Alexander Arriola, egun batetik bestera. Kasu horren harira, Etika Batzordea desegitea proposatu du EH Bilduk, “Jaurilaritzaren jarduera zurtzeko baino ez duelako balio”. Organo independente bat sortzea eskatu du.

Martxoak 3

Milaka lagun batu zen joan den astean Gasteizko kaleetan, 1976ko martxoaren 3an hildako langileak oroitu, bizi-baldintzen okertzea salatu eta langile borroka aldarrikatzeko. Kalez jantzitako polizia ugariak tentsioak sortu zituzten, eta bi gazte atxilotu. “Azken urteetako poliziaren presentzia handienetarikoa” salatu zuten Gazte Blokeko kideek.